

• A L E B E R E Z I A

Berrigara

PAZKUAK 98

Zure inbertsioak errentagarri egiteko,
utz ezazu estatuko lehenengo gestore
independienteak bidera zaitzan.

<http://www.abasesores.es>

AB ASESORES



Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz 6
S.Lorentzo industrialdea
Tf. 943 76 54 35
20570 BERGARA



VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**



902 202 502

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



*Gazteendako, umeendako eta
ume jaioberriendako
altzariak eta dekorazioa*


Tapizak, moketak, alfonbrak



Kruz Gallastegi 3, Bergara.
Tf. 943 76 07 37.



Berrigara



Berrigara

325 zenbakia. Ale berezia
1998ko maiatzaren 29a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien. Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azala: "Nagixak".

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599


BERRIGARAK ez du bere gain hartzen auzidkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

Eguakitza, 29



Astean zehar eguraldi petrala izan badugu ere, eguraldi argiagoa eta epeltxoagoa izan dugu eguakitzean. Lainoen artean, ostarteak izango dira nagusi eta normalena eguraldi eguzkitsua izatea izango litzateke.



Sortu: 05:5
Gorde: 20:39

Zapatua, 30



Apurka-apurka eguraldi egonkorragoa izango dugu eta, laino batzuk egon daitezkeen arren, ostarteak nagusituko dira zapatuan ere. Baliteke arratsalde partean euri apurtxo bat egitea baina izatekotan, ur gutxi jasoko dugu.



Sortu: 05:50
Gorde: 20:39

Domeka, 31



Eguraldi eguzkitsua izango dugu domekan. Hego haizeak bizi samar joko du eta, beraz, tenperaturak gora egingo du. Disfrutatzeke moduko eguraldia izango dugu Pazku domekan. Zeru garbiak nagusituko dira.



Sortu: 05:49
Gorde: 20:40

Astlehena, 1



Eguzkitsua. Egunean zehar tenperatura atsegina izango ditugu. Arratsalde partean, berriz, zerua lainotzeko eta euria izateko arriskua izango da, ordu pare batez jaietako ekitaldiak estropeatzeko modukoa.



Sortu: 05:49
Gorde: 20:41

Eguraldia



Pello Zabala, metereologoa

Martitena, 2



Eguraldiak berdin jarraituko du, eguzkitsua, beraz. Bezperan bezala, Araba aldetik ekaizta etorri daiteke arratsalde partean. Bestela, tenperatura epelak eta ostarteak nagusi izango dira nagusi jaietako azken egunean.



Sortu: 05:48
Gorde: 20:42



Ilgora: ekainak 2

Alkatearen agurra

Urtero bezala, gure herriko jaiak, Pazkuak ospatzera goaz bergararrok. Udalak, Jai Batzordearen eskutik, Herriko kultura eta kirol taldeekin elkarlanean, haur, gazte eta hain gazte ez direnendako jai-egitaraua antolatu du urtean zehar dauzkagun eguneroko arazo horiek egun batzuetan bada ere, bazter batera utzi eta jai har dezagun.

Lerro hauen bitartez, kanpoan bizi diren bergararrei dei egiten diet, jaietan herriera etorri eta aspaldiko lagunak agurtze-

ko aukera aprobetxa dezaten. Inguruko herrietako biztanleei ere dei berbera egingo nieke, gehienbat gure eskualdeko herriarrei, Bergarara etorri eta Pazkuak goza ditzaten eta festa egiteko eta elkarrekin igarotzeko jaiak izan daitezten.

Nire agurrik beroena, arrazoi ezberdinak tarteko, gure artean izango ez direnentzat ere.

Bergarako alkatea:
Victoriano Gallastegi Altube

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Jai zorientsuak!

Amillaga 1 (B Pabiloia) 943 76 28 04 BERGARA

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Maria.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNA** Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGIA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Ines.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 00 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ek. 943 76 70 91 ■ **PEDAGOGOAK: IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea).** Simon Arrieta 3, 2-E. 943 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK: ALTIBERRI Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea).** 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita (Psikologo kliniko).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo kliniko).** 943 76 30 76

DEIAK

► **Gestorek** deitutako enkartelada egingo da Plazan gaur eguakitzan, 19:30etan, "Amnistiaren bidean" lemapean; zapa-tuan, 20:00etan, euskal pre-soak Euskal Herriratzeko manifestazioa irtingo da Plazatik; domekan, Koxka taldearen kontzertua izango da txoznetan 23:00etan; eta martitzenean 13:00etan, preso, errefuxiatu eta deportatuei omenaldia eskeiniko zaie Plazan. Ondoren luntxa banatuko da Kruz Gallastegin. Bestalde, Senideak deitutako kontzentrazioa izango da astelehenean, egun osoan, Gasteizko Legebiltzarrean.

► Domekan, Pazkua domekan, **San Esteban Elkoartiko jaia** ospatuko da. Eguerdiko 12ak jaiei hasiera emango zaie; ondoren meza eta luntxa.

► **Igerilekuak** itxita egongo dira zapatutik martitzenera bitartean (biak barne).

► **Urteaga kalean** eta Mayc lantegian aparkalekuak egokituko dira jaietan.

► **San Josepe elkarteak** kontsumoari buruzko ihar-dunaldiak antolatuko ditu ekainaren 8tik aurrera. Mahai-inguruan eta egingo den irteeran parte hartzeko izena eman beharra dago lehenbizi. 943 76 21 40.

ERAKUSKETA

► Ekainaren 7ra bitartean **Simon Arrieta zeramika taldearen** erakusketa ikusgai Kultur Etxean.

KONTZERTUAK

► **Jam diskoteka.** Zapatuan Peter & The Test Tube Babies eta Mentees enfermas 22:00etatik aurrera (sarrera 1.300 pezeta). Domekan, Manta Ray eta Lili Moon taldeak izango dira Jam-en. Bestalde, Oskorri & The Pub Ibiltaria iragarri da ostegunerako, hilak 4, 20:00etan Eibarko Unibertsitate Laboraleko Antzokian. Sarrerak: 800 (aurrez) eta 1.000 pezetan (takilan).

IKASTAROA

► **Jardunek txalaparta ikastaroa** antolatu du, ekainaren 4tik uztailaren

bukaerara arte. Klaseak eguenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara Kartzela Zaharrean. Andoni Goiti izango da irakaslea. Plaza mugatuak dira. Argibideak: 943 76 08 19.



ZINEA

► **Novedadesen Scream 2** filmea emango da. Eguakitzean eta zapatuan 22:30etan, domekan eta astelehenean 19:30etan eta 22:30etan. Eguaztenean (ikuslearen eguna) 19:30etan.

Lan istripuan hil da Victor Gomez gaztea

Victor Gomez Boyer 28 urteko bergararra lan istripuan hil zen eguaztenean. Oñatiko Chinchurreta lantegian lanean ari zela, 6:45ak aldera, altzairuzko hodian pakete bat gainera erori zitzaion grua baten azpitik pasatzean, sujezio engantxeetako bat apurtu ondoren. Hamar egun

zerama-tzan lanean enpresan. Aurretik herriko hainbat tabernatan lanean ibili zen. Bere aldeko hileta elizkizunak atzo izan ziren Santa Marina elizan.



Farmaziak

Eguakitzan 29:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
GAUEZ: RUIZ, Arrasate. 943 79 14 09.

Zapatua 30:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
GAUEZ: MORALES, Arrasate. 943 79 18 65.

Domeka 31:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
GAUEZ: AZKOAGA, Arrasate. 943 79 15 15.

Astelehena 1:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 2:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 3:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 4:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 31: Ogizun.
Martitzena 2: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	008
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Jardun	943 76 36 61
Postetxea	943 76 26 85

Zozketak

Bedelkar, harakinak: 1.936 zkia.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

ONDO PASATU
BERGARAKO JAIETAN!

Bidekurutzeta 16 BERGARA ☎ 943 76 23 94 - 12 65

EGUAKITZA 29

17:00

Euskal Bizikletaren hirugarren etaparen amaiera Ibargarain.

20:00

Bitorianatxoren jaitsiera eta jaien hasiera etxafleru jaurtiketekin San Martin plazan.



20:00etan Bitorianatxoren jaitsiera Plazan.

20:30

Udal Musika Bandaren kalejira, kalean zehar.

20:30

Eskola kiroleko sari banaketa San Martin plazan.

20:30

Dantzaldia Alaitz eta Mainerrekin San Martin plazan.

21:00

Barraka eta txoznen irekitzea.

23:00

Bergarako Orkestra Sinfonikoaren aurkezpeneko kontzertua

Udal Pilotalekuan.

EGITARAUA:

LEHEN ZATIA

"Beltxargen aintzira". Balletaren suitea. P. Tchaikowsky.

"Bigarren kuartettoa Dn". Sokak.

Ch. Wesley.

"Andaluziako irudiak". Miguel

Gonzalez Bastida.

BIGARREN ZATIA

Evita. Musikala. Andrew Lloyd

Webber.

Adaptazioa: Alfredo Gonzalez

Chirlaque.

Partebartzaileak: Bergarako

Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako

abesbatza.

Bakarlariak: Mireia Osinaga eta

Joxean Rodriguez.

- "Requiem for Evita".

- "Oh what a circus".

- "On this night of a thousand

stars".

- "Eva, beware of the city".

- "Buenos Aires".

- "Another Suitcase in another

ball".

- "Goodnight and thank you".

- "I'd be surprisingly good for you".

- "Don't cry for me Argentina".

- "Waltz for Eva and Che".

- "You must love me".

- "Lament".

- "Final".

Aurkezpeneko testua: Manu Diaz.

Aurkezlea: Alberto Gorritiberea.

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez

Chirlaque.

Bergarako abesbatzaren

zuzendaria: Imanol Urzelai.

23:00

Dantzaldia Alaitz eta Mainerrekin

San Martin plazan.

23:00

Rock kontzertua Bideberrin:

Fang, Mercromina, B-Violet eta

The Elevators.

ZAPATUA 30

09:00

XVIII. Haur eta Gazteen plastika sariketa librea.

Izen ematea Kultur Etxean.

10:00

Diana, auzoak esnatu ondoren

San Martin plazan bilduko dira.

- *Bolu auzotik Kobok*

dultzaineroak.

- *Oxirondotik Iosu eta Iokin*

soinujoleak.

- *Labegaraietatik Udal*

Txistulari Banda.

11:00

Mizpirualdera bisita.

11:30

Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa San Martin plazan,

trikitilariak alaituta.

12:00

Euskal Bizikletaren laugarren etaparen irteera.

16:00


Pilota partiduak Udal Pilotalekuan.

Pentekoste Saria.

PROMESAK:

Agirre eta Zearra, Tirapu eta

Balardiren kontra.



Barrakak irekiko dira 21:00etan.



Barrenkalea 35

Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

ONDO PASAU JAIXAK!!

☎ 943 76 24 89

Lehen mailakoak:

Salaberria eta Arretxe, Retegi II eta Errandonearen kontra.

BANAKA:

Barriola, Nalda III.aren kontra.

17:00

Txekorrak eta pottokak haurrentzat.

19:30

Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira, Udal Txistulari Bandak, Kobok Bergarako dultzainero taldeak eta Kukumako hankaluzeez lagunduta.

20:00

Bonba japoniarrak haurrentzat San Martin plazan.

20:00

Akelarre taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

22:00

Rock kontzertua Bideberrin. Sexy Sadie, El desvan del macho, Aton Rhumba eta Saturno.

23:00

Akelarre taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

Sukaldaritzan lehiaketa zapatu goizean Plazan.



DOMEKA 31

08:00

Alborada Udal Txistulari Bandarekin.

08:30

Diana Elgoibarko dultzaineroekin.

08:30

Kalejira Azpeitiko Udal Musika



Dantza txapelketa domeka goiz eta arratsaldean.

Bandarekin.

09:00

Lehen entzierroa: Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.

09:00

23 urtez azpiko eta elitekoentzako txirrindulari lasterketa "LXIII. Pentekoste Saria".

10:00

Plater tiraketa San Juan auzoan Ollagorra elkarteak antolatuta.

11:00

Meza Nagusia San Pedro elizan Udalbatza partaide dela eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.

11:30

Hamabost urtez azpiko bikote gazteentzako XXI. Euskadiko Dantza Suelto Txapelketa San Martin plazan. Lehehengo 10 bikoteak arratsalderako sailkatuko dira.

12:30

Udal Musika Bandaren kontzertua Espoloian.

EGITARAUA:

"Pompa y circunstantia 1".

E. Elgar.

"La forza del destino".

Obertura. G. Verdi.

"Aquarium". J. de Meij

"Musuaren kondaira".

Aukeraketa. Soutullo y Vert.

"Hooray for Hollywood".

R. A. Whiting.

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez

Chirlaque.

13:30

Erribera eta Mendia jotari taldeak Nafarroako jotak eta kantak abestuko ditu herriko kaleetan zehar.

16:30

Pilota partiduak Udal Pilotalekuan. Pentekoste Saria.

PROMESAK:

Urionaguena eta Pinedo, Barberito VI eta Tabernaren kontra.

Lehen mailakoak:

Alustiza eta Errasti, Etxaniz eta Zezeagaren kontra.

BANAKA:

Imaz, Rairen kontra.

17:15

San Martin plazatik zezen plazaraino kalejira Azpeitiko Udal Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. Mandokoek, agoaziltxoek, agintariak eta herriko zaletuen kuadrilek parte hartuko dute. Alzelairenean mokadu bat egingo dute.

17:30

Bikote Gazteentzako XXI. Euskadiko Dantza Txapelketa San Martin plazan, Udal Txistulari Bandak lagunduta.

18:00

Zezen festa Salamancako Lopez Chaves ganadutegiak antolatuta Zezenleak taldearen laguntzaz. Javier Castaño eta Raul Cano toreroekin.

20:00

Kalejira Azpeitiko Udal Musika Bandak alaituta.

23:00

Oropendola taldearekin camp dantzaldia San Martin plazan.



Tf. 943 76 56 88

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Jaien ostean helbide berri honetan izango gaituzue:

FRAISKOZURI 5A, I-D

(oraingo helbidearen parean)

Eta orain **ORTODONTZIA** espezialitatean ere badihardugu!

ASTELEHENA 1

08:30

Kalejira Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.

09:00

Bigarren entzierroa Barrenkaetik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak, animatzaile trebatuen laguntza eta Los Incansables txarangak alaituta.

11:30

Jolas parkea Seminarioko patioan eguerdira arte. Karrak, gaztelu puzgarriak, e.a.



Jolas Parkea astelehen goiz eta arratsaldean.

11:30:

Barraketan haurrentzat prezio bereziak.

11:30:

Udal Musika Bandaren kalejira.

12:30:

Udal Musika Bandaren kontzertua Espoloian.

EGITARAUA:

"San Migelpe". Martxa.

Alfredo Gonzalez Chirlaque.

"Tancredi". Obertura. G. Rossini.

"Arleseko emakume baserritarra".

Aukeraketa. E. Rosillo.

"Symphonic variations".

J. de Haan.

"Comedians galop".

D. Kabalewsky.

Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

16:00

Seminarioko patioan jarritako jolas parkea iluntzera arte.

16:30

Pilota partiduak Udal Pilotalekuan. Pentekoste Saria.

PROMESAK:

Ariznabarreta eta Oliden, Berasaluze VIII. eta Arroyo II.aren kontra.

Lehen mailakoak:

Unanue eta Armendariz, Nagore eta Galartza III.aren kontra.

BANAKA:

Lejardi, Kokaren kontra.

18:00

Gorritiren zezen ikuskizuna, Los Incansables txarangak animatuta, zezen plazan.

20:00

Los Incansables txarangaren kalejira.

22:30

Rock kontzertua Bideberrin.

Hot Dogs, Joxe Ripiau, Assholes eta Fly Shit.

11:00

Tarantella orkestarekin camp dantzaldia Espoloian.

MARTITZENA 2

08:30

Kalejira Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.

09:00

Hirugarren entzierroa Barrenkaetik zezen plazaraino.

Ondoren, enbolatuak animatzaile trebatuekin eta Los Incansables txarangarekin.

11:30

Herri trenaren bira, Fraiskozuri plazatik irtenda.

12:00

Aranzadi Ikastolako dantza taldearen erakustaldia San Martin plazan.

13:00

Trikitilariak lagundutako poteoa eta, ondoren, herri bazkaria. Bazkal ostean, jokuak.

16:30

Pilota partiduak Udal Pilotalekuan. Pentekoste Saria.

Promesa, lehen maila eta banakako txapelketetako finalak.

17:00

Herri trenaren ibilera gauera arte.

18:00

Manzarbaitia ganadutegiaren enbolatuak, herriko kuadrilentzat zezen plazan, Los Incansables txarangarekin.

20:00

Los Incansables txarangarekin kalejira.

20:00

Dantzaldia San Martin plazan Kiriutaldearekin.

24:00

Bitorianatxoren igoera San Martin plazan, jaiei amaiera emateko. Egun osoan zehar Xafre eta Zaharra eta Iosu eta Iokin trikitilari bikoteak. Eta Los Incansables txaranga. **B**



Herri bazkaria martitzen eguerdian San Martin Plazan.



ARATZ

Zurradero 6, behea

Telefona: 943 76 70 67 Mobila: 907 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

Jai zoriontsuak opa dizkiegu gure bezero guztiei!

**MARGA
JANTZIDENDA**

San Pedro 20. Tf. 943 76 05 37 **Zorionak Pentekoste jaietan!!**



Jaioberri, ume eta gazteentzako
oinetakoak. **17tik 40rako zenbakiak.**

Ponti Timoner *banatzaile bakarra*
Chiquitin • Domene • Calzaria
Superga zapatilak

ZAREN



Telesforo Aranzadi 2. Tf. 943 76 29 52



ONDO PASAU JAIXAK!



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20.570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

UGARTE

AROSZTEGIA

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



Ondo pasatu jaiak!

San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefona eta faxa: 76 54 91

Biharamunerako aholkuak

Karlos Argiñanoren errezetak eta pozimak



Kipulak bertute ikarragarriak dituen barazkia da. Bere onurak aspalditik ezagutzen dira eta 1920ko hamarkadako Paris "zoro" hartan ere gauez bizitza intentsi-boa egiten zuen jendeak kipula-zopa hartzen zuen.

Biharamonaren kontrako beste "pozima" bat tomate zuku da, galdutako likidoak, mineralak eta bitaminak berreskuratzeko aukera ematen digu eta. Sekretua pikante piskat gehitzen datza, gorputza "berpizteko". Ginebra txorrostada-txo bat botatzen dionik ere bada, biharamonari aurre egiteko metodo egokiena berriro edatea delakoan. Baina kontuz honekin, horrela jokatzuz gero, batere gomendagarria ez den alkohol-biharamona gurpil zoro batean murgil gaitezke eta.

Emaitza onenak lortzeko, aipatutakoaz gain, dutxa hotz eta beroak tartekatzea ("dutxa eskoziarra" deritzona), horrela zirkulazioa bizkortu eta primeran aterako gara.



Karlos Argiñanok biharamunerako aholkuak eman dizkigu.

KIPULA ZOPA

OSAGIAK

(4 lagunentzat)

- Litro eta erdi barazki edo hegazti salda: ura, gatza eta barazkiak edo hegaztiak.
- 3 kipuleta.
- Oliba-olioa.
- 12 ogi xigortu-xerra.
- Gazta birrindua.
- Gatza.
- Beraktz atal bat.

PRESTAKETA

Barazki edo hegazti salda gertatu, 2-3 orduan osagaiak egosten utziz. Ahalik eta kontzentratuen.

Iragazi eta utzi gero koipea ondo kendu ahal izateko.

Lapiko batean, tira finetan ebakitako kipula, gatza eta oliba-olioarekin suetzitu eta su motelean potxatu 10-15 minutuan gorritzen hasi arte. Gatza bota ondoren, lehen gertatutako salda gehitu eta 25-30 minutuz egosi ez oso su bizian.

Zopa dastatu nahikoa gatz duen ikusteko eta zuritutako eta erdibitutako berakatz atalaz igurtzitako ogi-xerrak gehitu.

Azkenik, gazta birrindua gaitetik bota eondoren, 2 minutuz gratinatzen eduki labeen. Eta on egin!

BIHARAMONAREN KONTRAKO KOKTELA

OSAGIAK

- Baso bat tomate-zuku.
- Tabasko goilarakadatxo bat.
- Goilarakadatxo erdi gatz.
- Piperbeltz zuri apur bat.
- Goilarakadatxo erdi apio hautsetan.

PRESTAKETA

Osagai guztiak ondo nahastu. Ondo eragin. Frigorifikoan hozten laga. Eta listo!

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Jai zoriontsuak!!

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25

Gerra zibila ikusgai

Ondo Bihurtu taldearen eskutik Udaletxean



Aldameneko argazkian Udaletxeko Pleno aretoan ikusi daitekeen erakusketaren irudi bat. Eskumako argazkietan, goitik hasita: Kortabarria batailoia Elgetako frontean, Benigno Zurutzaren ezkontza egunean (1936); Bergarako erreketetako taldea, San Martin Agirre konpainia, Zaragozan; tropa nazionalak Angiozarren (1937ko apirila) eta Batzokiko dantzariak, gerra aurretik.

Atzo inauguratu zen Udaletxean, "Bergara Gerra Zibilean. 1930-1939" izenburupean, Ondo Bihurtu taldeak prestatu duen erakusketa. Bertan, gerrako eta gerra aurreko urteetan Bergara eta inguruan izandako gertaerei buruzko hainbat xehetasun eta bitxikeria biltzen dira. Besteak beste, gerrako materiala, banderak, txartelak, gutunak, argazkiak edota Elgeta eta Elorrioko sektoreen maketa. Ekainaren 14ra arte izango da zabalik.

Erakusketa era kronologikoan antolatuta dago eta bi zati bereizten dira: alde batetik, Bergaran gerrak izan zuen eragina, fronteari buruzko datuak edota herrian jasotako materiala ikusi daiteke. Zati honek erakusketaren erdia baino gehiago hartzen du. Bestetik, "Biasteriren Adiskide Elkar-tea"k lagatako materiala biltzen da eta

gerraren ikuspegi zabalagoa ematen da, hainbat tokitan jasotako materialaren bitartez.

Ondo Bihurtu taldekoek 15 hilabetez jardun dute gaiari buruzko datuak jasotzen. Euskal Herriko eta kanpoko hainbat museo, artxibo eta etxe bisitatu dituzte material bila eta gerra ezagutu zuten Bergara eta inguruko lekukoekin

elkartu dira, testigantza zuzena jasotzeko. Erakusketan biltzen den gerrako material originalaren zatirik haundiena Biasteritik ekarri dute eta gehiena gerra galdu zuen bandoari kendutakoa da.

30eko hamarkadako politika, gizarte, kultura edota ekonomiari buruzko ikuspegi zabalagoa eman nahi dute Ondo Bihurtu taldekoek erakusketan.



LASA
Jatetxea

Ondo ibili
jaixetan!

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

Abiazioko bonba haundi bat

Pleno aretora igotzeko eskailaratan abiazioko bonba haundi bat jarri dute. 36 zentimetroko diamentroa eta metro bat eta 60 zentimetroko luzera du eta 250 kilo ditu. Horrez gain, aretoan bertan, gerrako hainbat material aurkitu daitezke: granadak, kargadoreak, bonbak...

Ikurriñak eta banderatzokak ere badaude: UHPrenak, sozialistenak... Gerra denborako nazionalisten ikurriñarik, ordea, ez dago. Ejerzitoaren museotik Elosegik hartu zuena, Etxarkundia batailoiarena, bere alargunaren etxean dago. Gudarien jantziak, sindikatueta-ko txartelak, salbokonduktoak, insigniak, agiriak, kartelak, e.a. ere aurkitu daitezke; baita neskalagunak frentean dagoen maitatuari idatzitako amodiozko gutuna ere.

Intxorta frenteari buruzko maketa

Ondo Bihurtukoek Bergarako zonaldeari buruzko maketa prestatu dute. Bi metroko zabalera eta hiru metroko luzera dauka eta polispana erabili dute maketa egiteko. Sestra-kurbak kontutan hartuz egin dute maketa eta Bergara, Elorrio eta Udalaiz inguruak hartzen ditu. Maketa berdez margotu dute eta herriak eta etxeak agertzen dira. Gerra denboran Bergara eta ingurua nolakoak ziren adierazten da maketan: Intxorta frentea, trintxerak...

Era guztietako egunkariak

Erakusketan, era guztietako egunkariak aurkitu daitezke: errusiarrak, italiarrak, euskaldunak eta espainolak; Nazionalen aldekoak, abertzaleak edota errepublikarrak. Esate baterako, La Voz de Españaren 1937ko apirilaren 23koa, Francoren tropak Udala ingurua hartu eta Elorrioko frentea behera eto-

**Maiatzaren
28tik
ekainaren
14ra arte
Udaletxean.**

rri zenekoa; baita, Arriba España, El pensamiento Alavés, El Correo Español eta El Diario Vasco, Nazionalen aldekoak denak. El Diario Vascoren 1937ko ekainaren 20ko alean, azalean, titular hau irakur daiteke: "Bilbao es ya de España" eta Francoren argazki haundi batekin ilustratzen da notizia. Egunkari nazionalistak (Euzkadi edota Tierra Vasca) eta aldizkari komunista eta anarkistak ere badaude.

Gai oso delikatua

Gerrak Bergaran izan zuen eragina buruzko ikerketa-lan sakona egin dute Ondo Bihurtukoek. Gai oso delikatua dela kontutan izanda, ikerketa egiterakoan aurreiritzirik gabe jokatzeko saiatu dira eta lekukoaren kontaketa, agiri eta informazio kontrastatuaren zehaztasunaren bitartez hurbildu dira gertaerara. Pertsonak errespetatzea eta gertaerei lehentasuna ematea izan da euren lan egiteko modua.

Bergarako industria gerra denboran

Josuren Murgizu, Ondo Bihurtu taldeko kideak adierazi digunez, Bergarako industria oso garrantzitsua bilakatu zen gerra denboran Francorentzat. Zerrajeran, gerrako materiala fabrikatu zuten; ehungintza enpresek, bestalde, Nazionalen jantzientzako oihalak egin zituzten. "Bergarako enpresa haundien ugazabak, urte gutxiren buruan, aberastu egin ziren" adierazi digu.

Bestalde, Intxorta frentean 1.000 bat lagun hil zirela azpimarratu nahi izan du: "historia ofizialak 90 hildako baino ez zirela izan kontatu digu, baina Bergarako epaitegian 200dik gora heriotz agiri zenbatu ditugu, eta askoz ere hildako gehiago izan ziren". **B**



NINIKA

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01

LOREAK MUNDU
OSOAN



INTERFLORA

loradenda

Ondo pasau Bergarako jaietan!

Txirrindulari onenak bertan

Bitorianatxo Seminarioko teilatutik Udaletxeko balkoi nagusira jaitsi eta aurtengo jaiei hasiera ofiziala eman baino ordu batzuk lehenago, Euskal Herriko txirrindularitzaren hiriburu bihurtuko zaigu Bergara. Dena prest dago kolore askotako tropela Fraisko zuriko helmugara iritsi dadin. Munduko txirrindulari onenak gertutik ikusteko aukera ezinhoea.

Euskal Bizikletaren aurtengo edizioko hirugarren jardunaldiak Bergaran izango du helmuga eta laugarren etapa, Bergaratik Abadiñora doana, zapatu eguerdian irteno da Oxirondotik.

Hainbat kale itxita

Eguakitzean, Bergara erdialdeko kale gehienak itxi egingo dira. Helmuga Fraisko zuriko kalean, Avenida aurrean, jarriko da. Hori dela eta, Bideberritik autobus geltokirainoko bidea itxi egingo da trafikoa eragozteko; Ibargarai azken momentuan itxiko dela adierazi du udaltzaingoak. Artekalea eguean zabaldu zen eta, alde zaharretik bideratu ahal izango da trafikoa.

Begaratik Abadiñora joango den laugarren etapa eguerdian jarriko da martxan eta Oxirondo azoka aurretik irteno da. Txirrindulariek firma kontrola egiteko gunea, azoka aurrealdean dagoen aparkalekuan kokatuko da eta, aparkalekua, lasterketako kotxeentzat laga beharko da. Horregatik, gune horretan ezin



Abraham Olano, iazko irabazlea.

izango da aparkatu. Goizeko 9:30etatik 10:30ak arte, txirrindulariak gertutik ikusteko eta sinaduraren bat eskatzeko aukera egongo da.

Biasteri-Bergara eta Bergara-Abadiño

Bergaran amaituko den etapak, Biasteritik datorrena, 152 kilometroko ibilbidea dauka. Tropela 17:00ak edo 17:30ak aldera helduko da Bergarara. Elorregitik etorri-

ko da eta saihesbidetik Beheko Estaziora sartuko da, Ibargarai kalea zeharkatu eta Fraisko zurin izango du helmuga. Bestalde, zapatuko etaparen lehen sektorea, Abadiñon amaituko dena, motza (85 kilometro) eta gorrak izango da.

Azken kilometroak gogorak

Bergaran amaituko den etapako azken 40 kilometroetan egurra egon daiteke eta, beraz, amaiera polita ikus dezakegu. Azken 40 kilometroetan, Deskarga eta Asentzioko mendateak gaizto beharko dira. Azken hau, lehen mailakoa da eta helmugatik 17 kilometrotara dago. Aurretik Deskarga jaitsi eta Antzuolatik Angiozarrera joango dira; gero Asentzio igo beharko dute eta ondoren,

Kanpazarretik Elorregira abiatuko dira, azkenik, barrantetik Bergaran sartuz.

350 metroko zuzena

Fraisko zurira heldu aurretik, bihurturik gabeko 350 metro inguruko ibilbidea izango dute txirrindulariek. Aukera bikaina sprinterentzat. Bergarako helmuga, onenatarikoa dela adierazi du Joxe Aranberri, Euskal Bizikletako antolatzaile nagusiak.

Jalabert faborito nagusia

Antolatzaileen eta kazetari askoren ustez, Once taldeko Laurent Jalabert da aurtengo Euskal Bizikleta irabazteko faborito nagusia. Manolo Sainzek, Onceko zuzendariak, ez du lasterketa hau inoiz irabazi.

100 milioi pezetako aurrekontua

Euskal Bizikletaren aurtengo aurrekontua 100 milioi pezetakoa da. Lokatzak, Udalaren laguntza izan da Bergarari dagokion ia 4 milioi aurre egiteko. B

**Eguakitzean
Fraisko zuriko
kalean
17:00etan.**

KAZOLATXOAK, PINTXOAK, BOKADILOAK ETA AFARIAK DIRA GURE BEREZITASUNAK.

Ondo pasau
jaizak!

PISZINETAKO

Ondo pasau
jaizak!


TABERNA

BERGARA TF. 943 76 53 55



MATXIATEGI

ELEKTRAGINTZA




⚡ Era guztieteko instalakuntza elektrikoak

⚡ Aurrekontua eta aholkularitza, konpromezu barik

⚡ Lanpara erakusketa

⚡ Elektrizitate materialen salmenta

A. Fleming 5. 943 76 19 94



BOLINTXO ZURRADERO

Okindegia


Adi! Adi! Adi! Saloura bidaia!

Saloura bidaia bat zozketatuko dugu 98-6-30ean:

Astebetekoa - 2 lagunendako - 3*** hotela - Pentsio osoa

Port Aenturarako 2 sarrera.

Zurradero 2, behea. Tf. 943 76 01 26



Zuekin batera festara goaz



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Evita musikala

Bergarako Orkestra Sinfonikoak bere azken lana aurkeztuko du jaietan. Andrew Lloyd Weber-en "Evita" musikalak izugarritzko arrakasta lortu zuen 1980ko hamarkadan. Gaur, jendez gainezka egongo den Udal Pilotalekuan, musikal horren selekzio bat entzuteko aukera izango da 23:00etatik aurrera.

**Eguakirtzean,
Udal
Pilotalekuan.
23:00etan.**

76 musikari

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Orkestra Sinfonikoko 70 musikari arituko dira gaur gaueko "Evita" musikalean. Orkestako kideek euren jantzi berriak estreinatuko dituzte gaurkoan. Neskegonak eta brusa beltzak jantziko dituzte eta gizonek, berriz, *smoking* beltza. Orkestarekin batera, rock talde baten partaidetza ere izango da emanaldian.

50 kantari

Bergarako Abesbatza osatu da gaurko herriko abesbatza ezberdinetako abeslariekin. Berrogeita hamar lagun izango dira taldean eta zuzendari lanetan Imanol Urzelai arituko da.

Bakarlarriak

Mireia Osinaga bergararra eta Joxean Rodriguez legazpiarra izango dira bakarlarriak. Mireia Izadi taldeko ahotsa izan dugu urte askotan eta Joxean Rodriguezek (garai batean Bergarako Clan V taldean aritutakoa)

Grupo Legazpin abesten du. Biek ere badute esperientzia horrelakoetan; Osinagak "Miserableak" ikuskizunean hartu zuen parte eta Rodriguezek, berriz, orkestaren 10. urteurrena ospatzeko orain bi urte egin zen "El Rey Leon" musikalean.

12 pieza

Kontzertuak bi zati izango ditu: aurrenekoan, Bergarako ereserkia (koroarekin batera) eta Tchaikowsky, Ch. Wesley eta Miguel Gonzalez Bastidaren piezak joko ditu orkestak. Bigarrean "Evita" musikal etorriko da. Andrew Lloyd Weber konpositoreak eta Tim Rice idazleak 1976an ezagutzera eman zuten musikal honetatik 12 pieza ezagunenak aukeratu dira. Alberto Gorritiberea aurkezlea pieza bakoitza aurkezten joango da. Kontzertuak ordu eta erdi inguruko iraupena izango du.

Historia luzeko lana

1976an lehen aldiz grabatu zenetik, "Evita" musikalak historia luzea izan du.



Mireia Osinaga eta Joxean Rodriguez "Evita" musikaleko bakarlarriak.

1978an Londresen estreinatu ondoren, mundu osora zabaldu zen, izugarritzko arrakastarekin gainera. Musikalean Eva Maria Duarte, 1946an Argentinako presidentente izandako Juan Domingo Peron emaztearen gorabeherak kontatzen dira. Alan Parker zuzendariak 1996an zinerako lehen bertsioa errodatu zuen eta, ia bi hamarkada geroago, musikalak bultzada berria jaso zuen. Filme honetarako egindako grabazioan oinarritu da, hain zuzen, orkestako zuzendaria partiturak ateratzeko.

1.400 ikusle

Udal Pilotalekua gaur bete egingo dela espero da. Musikari eta abeslariak Pilotalekuko frontisean kokatu dira eta kantxan 400 lagunentzako eserlekuak jarriko dira. Gaur, 21:00etatik aurrera, Frontoiko takilan salgai jarriko dira geratzen diren sarrerak (250 sarrera inguru). Orkestaren azken lanekin gertatu den moduan Gor enpresa arduratuko da gaurko soinuaz eta argiztapena Urnietako ABSek eramango du. Emanaldirako 25 mikrofono erabiliko dira. **B**

Nereia

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Ondo pasau jaixak!

UDAN, zapatu arratsaldeetan itxita eta
astelehen goizetan zabalik.

BERGARA ROCK

**Herriko rock-aren
azken labealdia**

Spok, Txokolate Revenge edota Fucking What!, izen batzuk aipatzearen, taldeen ondorengoak dira: Bergarako rock-aren azken labealdia. Musika soinu eta proposamen berriekin datoz eta ilusioz gainezka. Esperientzia haundiegirik ez badute ere, lokalean egindako ordu piloetan landutakoa eskainiko dute jaietan Bideberrin. Euskal Herriko eta estatuko hainbat talderekin batera jardungo dute eszena-tokian.

**Eguakitz,
zapatu eta
astelehenean
Bideberrin.
22:30etan.**



KIRU

SATURNO

Alex (gitarra eta ahotsa), Itziar (teklatura eta ahotsa) eta Mikel Azkargortak (bajua) osatzen dute Saturno. Une honetan ez dute bateria fijoarik, baina azkenaldian La Parranda taldeko Jokinek laguntzen die. Urtebete inguru daramate elkarrekin eta Alexek konposatutako pop ikutuko (The Cure, Galaxie 500) abestiekin maketa bat grabatu zuten iaz, Inigok, lehengo bateriak, taldea laga aurretik. Halere, eurek diotenez, gaur egun soinu gogorragoak eta eritimo azkarragoak lantzen dituzte, noise-pop tankerakoak. Kantu berrietan teklatuak ez dauka halako pisurik eta gitarrei eman diote garrantzia haundiagoa. Bestalde, abesti gehienak Itziarrek kantatzen ditu.

Zapatuan Sexy Sadie, Atom Rhumba eta El desván del macho taldeekin batera joko dute Bideberrin. Sexy Sadie oso gustoko dute eta baita eguakitzean izango diren Mercromina edo Fang ere. Halere, Dinosaur Jr taldearen musikatik gertuago ikusten dute euren burua. Ia ordubeteko kontzertua emango dute

txoznetan: abesti gogorrenekin hasi bukaera alderako lasaiagoak lagaz. 12 bat kantu izango dira eta horietatik bost, beste talde batzuen bertsoak: bat Pixies taldearena.

Musikaren bitartez, sentimenduak eta emozio bereziak azaleratu nahi dituzte eta ingelesa erabiltzen dute kantatzeko. Ahotsa, beste instrumentu bat bailitza erabiltzen dute, musika-soinuari, dagokion ahots-soinua egokituz.

THE ELEVATORS

Kepa (bateria), Etor (bajua) eta Mikel (gitarra). Orain dela hiruzpalau urtetik elkarrekin, baina duela bost hilabete ingurutik serioago dabil-tza, entsaiatzeko lokala lortu zutenetik eta instrumentuak erosi zituztenetik. Aurtengo Santo Tomasetan egin zuten debuta jendeaurrean Pol-Polen.

Euskaraz kantatzen duten talde ezagunak ez dituzte oso gustoko, dagoneko desagertuta dagoen Ama Say izan ezik; nahiago dute The Stooges, Kim Salmon, Bos Hog, Buzzcocks edo Dictators eta euren bertsoak egiten dituzte. Bestalde, eurek konposatutako hiruzpalau abesti dituzte. Ingelesez abesteko dute. Rock and roll azkarraren inguruan kokatzen dute euren burua, baina



**Kosmetika.
Oparigaiak.
Eder gela.
Bio solariuma.**

*Jai zoriontsuak
izan ditzazuela!*

IGARO USAINDEGIA, BARRENKALEA 35. TF: 943 76 17 27

Igaro
G
Usaindegia

psikodelia ere gustatzen zaie; ez hainbeste, ordea, Mercromina edo Fang taldeen melodia poperoak, eguakitzean Bideberrin eurekin batera joko dutenak.

Zuzeneko emanaldietan mozorro-tzea edota kapelak janztea gustatzen zaie; gaur, eguakitzza, agian, ustekabe bat emango digute Bideberrin.

Euren helburua instrumentuak ondo menperatzea eta taldearekin disfrutatzea da; bestelako asmo barik, datorrena datorrela. Entsaiazteko lokalei dagokionez, haserre samar agertu zaizkigu: Zabalotegin Ibaiak taldearekin batera dute lokala, baina Udalak zer-bait egin beharko lukeela diote taldeei lokalak lagatzeko.



Fly Shit.

FLY SHIT

Bideberrin joko duten herriko taldeetatik gazteenak (16-18 urte), baina elkarrekin denbora gehien daramatzatenak dira (iazko otsailetik). Lau bergararrek: Ander (gitarra), Unai (gitarra), Igor (ahotsa) Osto (bajua), eta Eloi (bateria) plazentziarrak osatzen dute taldea. Eloiren

baketek markatzen dituzten erritmo bizkorrak eta hard core soinuak lantzen dituzte, normalean entzuten dituzten taldeen eraginez.

Urte baten buruan dozena bat kontzertu eskaini dituzte han eta hemen; batzuk, Euskal Herriko eta kanpoko talde ezagunekin batera: Anestesia, Señor No, Kashbad, Dick cheese, MCN...

Eszenatokian duten guztia ematen dute eta geldi egon beharrean, publikoarekin bat egin eta saltoka aritzea gustatzen zaie, ikusleekin benetako komunikazioa lortu nahian.

Normala den moduan, beste talde batzuen bertsioak egiten hasi ziren (Ramonés, Rip, Paralisis Permanente eta BAP!), baina, dagoeneko, hiru ordu laurdeneko emanaldia eskaintzeko adina abesti konposatu dituzte. Astelehenean, Bideberrin, euren hamabost bat kantu eta beste bizpahiru bertsio eskainiko dituzte.

Donostian ikasten ari den lagun batekin estudioan grabatzeko aukera sortu zaie eta horretan dihardute; ondo geratzen baldin bada, eta diru piskat aurreratzen badute, kopiak egingo dituzte eta, agian, ondoko lokalean entsaiatzen duten Assholes-en kantuarekin batera banatuko dituzte.

ASSHOLES

Andoni (bajua), Mikel (bateria), Aitor (gitarra), Unai (gitarra) eta Borobiak (ahotsa) osatzen dute Assholes. Iazko udazkenean sortu zuten taldea eta aurtengo Santo Tomasetan egin zuten debuta Pol-Polen. Oso gustoko duten HoT Dogs talde urretxua-



rrarekin joko dute Bideberrin. Pretentsio haundiegirik barik, euren asmoa ondo pasatu eta aisialdia tabernetatik kanpo igarotzea da.

Seminarioko lokaletan entsaiatzen dute, Fly Shit taldekoen ondoan.

Punk rockaren inguruan kokatzen dute euren burua. Besteak beste, The Clash, Radio Birdman, Dead Boys eta Señor No dituzte gustoko, baina Los Planetas edota Fresones Rebeldes taldeen pop-a ere entzuten dute (Mikelen) eta baita diskoteketako teknoaren joera berriak ere. Halere, pastien rolloa edota diskoteketan gau osoa sartuta pasatzeko moda ez dute gustoko.

Aitor Borobia, taldeko abeslaria, benetako showmana da eta zuzeneko emanaldietan bera da taldeko protagonista, Iggy Pop basatienaren parean jarritz. Taldekideek diotenez, euren nahikoa daukate instrumentuak ahalik eta ondoen jotzarekin eta eszenaratze kontuak abeslariari lagatzen dizkiote.

Euren konposatutako bost kantu dituzte eta gainontzekoak bertsioak dira, The Stooges, New York Doll's, The Clash edota Radio Birdmanenak. Kantatzeko ingelesa erabiltzen dute, musika estiloarekin bat datorrela iruditzen zaielako. Aitortzen dutenez, kantueta-ko hitzak ez dira oso onak eta, hori, ingelesez errezago disimulatzen ei da. Hitzetan, gizarte-kritika egin beharrean, nahiago dute egoera pertsonalei buruzko gora beherak kontatzea. B

Ibargarai 20, behea

BERGARA

Tf. 943 76 59 29

XAMARTIN KIROLAK

Ondo pasu jaixak!

Zela igaroko dituzu jaiak?

Aurten ere herritar asko izango dira Pazkuak herritik kanpo igaroko dituztenak. Bergaran diren bidaia ajentzietatik adierazi digutenez, aurten ere Salou da destinorik arrakastatsuenaria. Jaietako iskanbilatik ihesi, Landetara edo Pirineotara doan jendea ere bada gure artean.



M. Dolores Aranzabal

Hemen geratuko naiz. Bergarakoa izanda nola alde egingo dugu ba hemendik? Gustatzen zaizkit jaiak; zezenetara joan, gauez bailetara... Egunero ematen dugu bueltatxo bat, giro ona egoten da eta.




Iosu Sudupe

Hemen ibiliko gara. Batez ere gauez ibiltzen naiz lagunekin, egunez deskantsatu normalean. Kontzerturen bat ikusi, buelta bat eman... Egunero irtetzen naiz, baina astelehen eta martitzenean lasaiago ibiltzen gara.



Francisco Sanchez

Jaiak asko gustatzen zaizkit, primerako giroa egoten da. Gauetako giroa, berriz, ez zait hainbeste gustatzen, ez didatelako lo egiten uzten. Niri dantzaldiak, kaleetako giroa, musika... horrelakoe-kin disfrutatzen dut.



Jesus Mari Larrañaga

Semeak edade txarrekoak dauzkat eta hemen geratzen naiz. Egunez eta gauez bueltatxo bat ematen dugu, martitzenean izan ezik. *Camp* dantzaldiak gustatzen zaizkit gehien. Giro ona egoten da jaietan.



Jose Mari Ormaetxea

Ahal dudan neurrian jaiak aprobetxatzen ahalegintzen naiz; Espoloiko dantzaldiak, musika... haurrekin barraketara. Aurten garestiak dira entzun dut. Gauetan ez dut askorako aukerarik izaten baina ondo pasatzen dut.



Itziar Muruamendiaraz

Cambrilsera joango naiz. Urtero alde egiten dut jaietan; nahiago dut hondartzara joatea hemen ibiltzea baino. Deskantsatzera joateko aprobetxatzen dugu. Jaiak ez ditut oso gustoko.



Maria Romero

Nafarroara joango naiz, Mendabiara. Gizona hangoa da eta han ere jaiak dira. Birginaren erromeria dago eta martitzenera arte han geratuko naiz. Juergatxo bat edo beste egiteko aprobetxatuko dugu...



Josefina Guerra

Zapatuan eta astelehenean behintzat, lan egin beharko dut. Egunez buelta bat ematea gustatzen zait eta gauez ere irtetzen gara piskat. Entzierroak gustatzen zaizkit batez ere. Dantzaldietan, jende gutxi egoten da...

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Berandu izan baino lehen zaindu zaituz!

Zure osasuna zaintzeko gaude.

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34

Primitiva Morenoren oinordekoak
Arrain freskoa eta konjelatua
Mota guztietako mariskoak

**ITXAS
EDER**
ARRAINAK

Marisko Haztegia

**ONDO PASAU
JAIXAK!**

Mintegi kalea 5, behea BERGARA

Teléfonoak: Arraindegia: 943 76 47 41 • Etxea: 943 76 21 08 • Mobila: 908 77 04 88



*Egurrezko materiala
eskuz pintatzen dugu.
Eskulanetarako gaiak.*

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea
Tf. 943 76 18 93



ONDO PASAU JAIXAK!



JAIETAKO MODA brusak



NAGIXAK

Karmele Prieto eta **Elena Gallastegi**, Nagixak koadrilakoak dira, urtetan Pazkuetako kuadrilarik animosoen izan dena. Orain dela 17 urte atera zituzten rugbyko taldeen moduko lepodun kamiseten tankerako elastikoak; kolore biziko arraia horizontaldunak. Aurretik, telazko brusa berdea erabili zuten jaietan, bizkarraldean Nagixak idatzita zuena.



BALDARRAK

Koro Iraegi Baldarrak koadrilako kidea da. 1974.ean atera zuten kaki koloreko brusa; Lasagabasterrean egin zituzten eta bizkarrean, letra zuriz, Baldarrak izena jarri zioten. Garaiko modaren adierazle: kolore bakarreko brusa eta koadrila identifikatzeko izena.

Koadrilen brusek kolorez betetzen dituzte herriko kaleak Pazkuetan. 70eko hamarkadan agertu ziren lehen aldiz eta urtetik urtera janzkerak aldatu egin dira: lehen kolore bakarrekoak erabiltzen baziren ere, azkenaldian estanpatuak, loradunak eta kolore bizikoak nagusitu dira.




MOREA NAGUSI

Mireia Gallastegik eta bere koadrilakoek, more koloreko alkondara eta lila koloreko praka loradunak janzten dituzte jaietan. Halere, datorren urteko jaietarako ekipamendua aldatzeko asmoa dutela esan digu.



ESTRENUA

Ion Garitanoren (10 urte) koadrilak brusa berria estreinatuko du aurtengo jaietan. Oihala (estanpatua eta kolore biziduna) 1.000 pezetan erosi ondoren amamak egin dio jaietarako brusa eta Ion estreintzeko irrikaz dago.



ONGI PASA
JIAK!



*Zure
Opari Donda
Bergara*

Barrenkalea 27



ARLOTEAK

Ignacio Aristi "Tone" k ondo gordeta dauka Arloteak bere koadrilako brusa beltza. Duela 20 bat urte egin zuten eta nahiz eta urteen poderioz kolorea galdu eta zulatuak izan, sekula ez duela botako diosku: "kamisetarekin lurperatuko naute".



ORIGINALA

Joseba Praten koadrilakoek, brusa gorria, lisoa, baina besoetan eta bulardean laukitxo zuri eta beltzak konbinatzen dituen, erabiltzen dute. Alkadora originala da eta, gainera, oso egokia, kalean lagunak erraz topatzeko, urrietik ikusten da eta.



PEÑA LIMAKO

Iker Beistegiren lagunek eta beste bi koadrilek Peña Limako sortu zuten orain dela 10 urte. Kamiseta ere egin zuten: beltzak eta txuriak. Aurrealdean peñari izena ematen dion barea ikusi daiteke, kalimotxoa edaten (Karlos Garrantiak egindako marrazkia da).



MONGATXURRAK

Iñigo Gallastegi "Poti" Mongatxurak koadrilakoa da eta orain dela 15 bat urte atera zuten brusa. Oihala gogorra eta sendo samarra da, gaueko gehiegikerien ondoren, goizaldean, Bideberriko haize freskotik babesteko.



JAIETARAKO ONENA

Idoia Suinagaren koadrilakoek, brusa egiteko oihala erostera joan zirenean, zatarrenetarikoa aukeratu ei zuten. Jaietarako onena. Kolore marroiskak nagusitzen dira eta, tarteka, lora-txoak eta figura orientalak.



ESTANPATUA

Iñigo Orgaz "Tito" eta bere koadrilakoek orain dela 10 bat urte atera zuten laranja koloreko brusa estanpatua. Oihala herriko denda ezagun batean erosi eta amak etxean egin zien. Aurten, kamiseta aterako dute.

ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Fotokopiak
Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3
Fax zerbitzua
Enkuadernazioak
Eskolarako materiala

Planoen kopiak
Kautxozko zigiluak
Eta **KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN**
DIPOSITIBETATIK
nahiz **NEGATIBOETATIK**

PENTEKOSTE JAIAK

Bergarako Udalean
zure zerbitzura gaituzu:



BERGARAKO UDALA

	<i>Faxa</i>	<i>Telefonoa</i>
Bulego Orokorrak	943 77 91 63	943 77 91 00
Alkatetza		943 77 91 01
Artxiboa		943 77 91 32
Auzoak eta mendiak		943 77 91 41
Bideo zerbitzua		943 77 91 58
Eguneko zentrua (3. adinekoentzat)		943 76 21 40
Euskara zerbitzua		943 77 91 66
Gizarte ongizatea, osasuna, enplegua eta kontsumoa		943 77 91 65
Hirigintza, obrak eta ingurugiroa (bulego teknikoa)		943 77 91 68
Idazkaritza	943 77 91 63	943 77 91 00
Igerilekuak		943 76 20 51
Kirolak		943 77 91 67
Kiroldegia		943 76 56 41
Kontuhartzailtza		943 77 91 64
Kultur etxea	943 77 91 69	943 77 91 58
Liburutegi nagusia		943 77 91 62
Liburutegia (Osintxu)		943 76 23 76
Liburutegia (Angiozar)		943 76 16 19
Ludoteka-Udalekuak		943 76 23 76
Mizpirualde, zaharren egoitza		943 76 13 68
Obra eta Zerbitzuak	943 77 91 20	943 77 91 52
Ondare artistikoa		943 77 91 61
Turismo bulegoa		943 77 91 28
Udal euskaltegia		943 76 44 53
Udaltzaingoa		943 77 91 06
POSTA ELEKTRONIKOA		
Bergara@udal.gipuzkoa.net		Udaletxean
Berg.liburu@udal.gipuzkoa.net		Liburutegian

Elkarrekin dibertitzeko eta
solasean egiteko garaia!

Markox Juaristi, Akelarre taldeko arima "Ez ditugu jotzen gehien entzuten diren taldeen bertsioak"

Gaueko dantzaldiak alaitzen plazarik plaza dabil-tzan euskal taldeen artean profesionalena eta urte gehien daramatzana da Akelarre. Iñaki Arriaran plazentziarraren "Los Mansos" taldea desegin ondoren, orain dela 26 urte inguru, sortutakoa. Zapatuan San Martin plazan izango ditugu. Markox Juaristi (bajua), taldeko arimarekin berba egin dugu.

Akelarre taldean beterranoena zaitugu. Noiz hasi zinen?

E. 1974. urtean sartu nintzen Akelarren. Orduan, Iñaki Arriaran zen abeslaria eta Ariznoa diskotekan eta Osintxun sarritan izan ginen; halere, Bergaran aspal-di ez gara izan. Paco Diazek (bateria) ere 18 bat urte daramatza taldean. Beste taldekideak, Patrice Dumora (ahotsa), Xanet Arozena (gitarra) eta Juanma Labandibar (teklatuak), gazteagoak dira.

G. Iñaki Arriaran, Xabier Madina eta Anje Duhalde, besteak beste, Akelarreko kantariak izan dira.


E. Bai. Akelarretik musiko asko pasatu dira eta, ba-koitzak bere ikutu berezia eman dio taldeari.

G. Hainbat disko argitaratu dituzue...

E. Bai, "Asfaltuko lorea" (Xoxoa, 1980) izan zen lehena, Xabier Madinak kantatzen zuen orduan. Bigarrena, Anje Duhalderekin kaleratu genuen, "Hotel Kalifornia" ospetsuaren bertsioarena. Guztira, hamahiru disko kaleratu ditugu, azkenak iazko Gabonetan, zuzenean grabatua eta "XIII" izenburupean plazaratua.

G. Horixe da dantzaldiak alaitzen aritzen diren beste taldeetatik bereizten zaituztena, eskaintzen dituzuen abesti gehienak zue-nak direla...

E. Gure errepertorioaren %10 edo bakarrik osatuko dute bertsioek; gainontzekoak geure kantuak dira. Modari ez diogu kasurik egiten eta momentuan gehien



Markox Juaristik 24 urte daramatza Akelarren.

entzuten diren taldeen abestirik ez dugu jotzen.

G. Non izan duzue arrakastarik gehien?

E. Euskal Herriko zazpi probintzietan ibili izan gara baina, azkenaldian, Gipuzkoa eta Bizkaian eta Iparraldean ibiltzen gara batez ere. Tolosan beti izan dugu

arrakasta; Urola eta Deba eskualdeetan, ostera, gutxiago. Azken urteetan gero eta dantzaldi gutxiago antolatzen dira. Garai batean, urtean 240 bat emanaldi egiten genituen; orain, ordea, 120 bat egingo ditugu urtean. Halere, kalitateari eutsi nahi diogu eta ez dugu katxetik jaitsi; gehien kobratzen duten taldeen artean izango gara. **B**

**Zapatuan,
S.Martin
plazan.
20:00etan eta
23:00etan.**

ederTu

BARRENKALEA 23 TF. 943 76 29 65

**Ondo pasau
Bergarako jaixak!**

ROCK GAUAK

Azken tendetziak txoznetan

Testua: Unai Ziarsolo, Kepa Ramos eta Jose Mari Galan.

Bideberri gazteentzako topagunea izaten da jaietan. Txoznetako rock kontzertuetan, hasten diharduten Bergarako, Euskal Herriko eta estatuko taldeak ikusteko aukera izango da aurten ere. Hiru egunetan zehar, 12 talderen emanaldiak izango dira. Bergarako The Elevators, Saturno, Assholes eta Fly Shit taldeez gain, kanpoko beste zortzi talde. Hauek dira zortzi talde horiek.

Eguakitz, zapatu eta astelehenean Bideberrin. 22:30etan.

FANG

Banyoles (Girona). Mariona Aupí eta Jaume Garciak osatzen dute taldea eta zuzeneko emanaldietarako bigarren gitarra baten laguntza izaten dute. 1997ko diskorik onenatarikoarekin "My weak point" (Moby Disk) egin zuten debuta. Zure bihotzerantz bideraturiko hamar kanturekin. Giro ilun eta bizitzaz beteriko sentimenduetatik arnasten duen lana.

Arrakasta erraza bilatzen duen moda estilistikoak alde batera lagaz, eta inongo aurreiritzirik barik, oinarri artistikoa eta doinu elektronikoak nahasten dituzte gironarrek.

Bideberrin euren azkenengo lana aurkeztuko digute: "My black dress".



MERCROMINA

Mercromina, unibertso guztiz kimikoa. Albacetekoen lehen diskoa, "Acrobacia" (1995), ahozapai zeken batek edateko eginga. Estraineko disko hau eta "Liquidos" CD laburra (1996), urteko diskorik onenatarikoen artean kokatu ditu kritika espezializatuak.

Hirugarrena, "Hulahop" izenekoa, taldearen konfirmazioko diskoa izango da. Hasieratik bukaerara arte gozatzera eroango gaituzte 11 kantuek: Mercrominak egin diezagukeen oparirik ederrera. "Hulahop" honekin, Mercrominak maila handiko popa fakturatzen

du, disko heldua eta harrigarria da, in-tuizio eta adikzioz betea. Nortasun handiko taldea osatzen dute eta urteko diskorik onenetakoa sinatu dute oraingoan. Zure konfidantza osoa me-rezi dutela uste dugu.

B-VIOLET

1995ean Badalonan sortutako taldea. Punk eta hard-corearen inguruko proposamen bat eskaintzera datorrigu Bideberrira. Oinarri gogorreko taldea, emakumezko talde amerikarrak gogorarazten dizkigute (Hole, Babyes in toyland, L7...) euren "Ultraviolet" (Liquid records, 97) izeneko diskoa entzutean.

Beraien zuzeneko emanaldiak berrizak izaten dira, energiakz beterikoak. Eta, noski, horrek bere fruitua izan du, izan ere, iazko Villa de Bilbao lehiaketa irabazi zuten eta. Neskek egindako "kaña", beraz, eguakitz gauerako.

SEXY SADIE

Mallorcako brisa epeletik ihesi, Bideberriko erreka ondoko iparra probatuzera datoz. Hamaika aldiz entzun dugun eta eskaini den "In the water" himno "indie"aren egileak ditugu, euren "Draining your brain" lehen diskoan



ONDO PASAU JAIXAK!

**ZUBI-BERRI
JATETXEA**

JAIXETAKO MENU BEREZIAK
ZATOZTE KOADRILAN!

San Anton auzoa Tf. 943 76 30 24

ATOM RHUMBA

Beste hainbat taldetan (La Secta, Yogur...) aritu eta gero, lau bilbotar hauek proposamen berria eskainiko digute. Gitarra zorrotzak, intentsitatea, kantu batzuetan saxoaren laguntzaz ("Blues explosion" datorkigu burura).

Can taldeari ere bere omenalditxoak egiten diote euren diskoan, Josetxo Anitua (Cancer Moon) abestia gainera. Euskal panoraman agertu diren taldeen artean, interesgarrienetarikoa. Aurten go Villa de Bilbaon bigarren saria jaso berri dute eta euren maila bikaina aitortu die epai-mahaiak. Musikazaleen gustoen artean ere ildo bat zabaldu dezakete.

HOT DOGS

Betiko rock and rolla. Urretxuarrek Stones eta New York Doll's krudelenak miresten dituzte. Inongo lotsa barik, gure muturren aurrean jartzen dituzte sexua eta rokanrola; posea kiloka darie, munduko edozein eszenatokitan jotzen baleude bezala eta, atzetik, oinarri instrumental sendoa. Hori barik ez bailukete sinesgarritasunik izango.

Harritzekoa da (Euskal Herrian beharbada ez hainbeste) oraindik inongo disketek fixatu ez izana. Bitartean, zuzeneko emanaldiekin konformatu beharko gara, noizbehinka odola ere agertzen denean...

Jaietako azken kontzertuak ez du gutxiago merezi.

JOXE RIPIAU

Muguruza anaien, hau da, Iñigo Ripiau (bajua) eta Jabier Ripiauren (akordeoia) taldeak, erritmo latinoz berotuko du asteleheneko gaua. Sergio Ripiauk perkutsioekin lagunduko die. Bi disko kaleratu dituzte: "Positive Bomb" (1996) eta "Carpe Diem" (1997), zein baino zein alaiago eta beroagoa, eta hirugarrena prestatzen ari dira. Ska akustikoarekin dantzatzeko aukera ederra asteleheneko emanaldirako.

MANTA RAY

Bideberriko karteletik aparte, Jam aretoan Lili Moon eta Manta Ray taldeen kontzertua iragarri da domekarako, maiatzak 31. Bi taldeak iazko jaietan Bideberrin ikusteko aukera izan genuen. Lili Moon mendarotarrek zabalduko dute kontzertua euren pop bonziarrarekin. Ondoren, Manta Ray-k "Pequeñas puertas que se abren y peque-

aurkitu genuena. Baina Sexy Sadie "indie" talde bat baino gehiago da.

Bigarren diskoan kantu ederrak eskaini dizkigute eta euren influentziak agerian laga dituzte: hasierako Bowie eta 60ko hamarkadako doinu psikodelikoak. "Mr Nobody" kantu zoragarriarengatik bakarrik, Sexy Sadie-ren salda sonikoari zurrutada bat ematea merezi du.

EL DESVAN DEL MACHO

Arrasateko talde veteranoa, zapatu gauerako. Estatu mailako talde gutxi aprobetxatu eta ahaztuenetariko bat. Ilunak, entzuteko zailak, erromantizismo krudelaz jantziak...; euren abestietako testuak beltzak, biolentoak, lizunak eta urratuak dira.

Bi disko dituzte: "Hermana violencia" (Nuevos Medios) eta "Lumbar" (Alehop).

Zuzeneko plaza askotan ibiliak dira erakutsia dute. Izan ere, horrenbeste urtetan musika jotzen (eta entzuten) ibili izana berehala igartzen zaie. Eurek abesten duten moduan: zure burmuinean esku bat sartzen, basatia eta bortxatzailea.



Sexy Sadie.

ñas puertas que se cierran" azken lana aurkeztuko du. Hainbat kolaboratzailearen laguntza izan dute disko honetan, Come-koak esate baterako, eta samplerrak, sintetizadoreak eta erritmo hipnotikoak dira nagusi. **B**



Lurrindegia
Edertze aretoa

alga

Ibargarai 10 Tf. 943 76 00 85

CLINIQUE

PARFUMS
GIVENCHY

ROCHAS
PARIS



BOUCHERON
PARFUMS
PARIS

PAYOT
PARIS

GUCCI

Barrakak prezioarengatik haserre

Barrakak bueltako 200 pezeta kobratuko dute

Barrakak prezioa merkatzeko eskatzeko firma bilketa egin dute aste honetan herriko ikasle gazteek. Azken egunotan asko berba egin da barrakak prezioaren inguruan. Bergarako Udalak lurra okupatzeari diru asko eskatzen diela eta, barrakak prezioak garesti jarri beharra dutela diote barrakariak. Aurten 175 eta 200 pezeta artean kobratuko da bueltako.

Hamabost urtetik behar herriko ikasleek BERRIGARA ekarri duten idazki batean, barrakak prezioak merkatzeko, barrakariak lurra alokairua ez kobratzea eskatzen dute. Bestalde, zerkoketa kendu eta sokamuturra ipintzea eskatzen dute ikasleek, honela, diru asko aurreratuko litzatekeelako eta barrakariak kobratu beharrik ez litzatekeelako izango; ondorioz, barrakariak ez lukete barrakak prezioak igo beharrik izango eta barrakak askoz ere merkeagoak izango lirateke. Idazkia kalean batutako hainbat sinadurekin batera, alkateari igorri diote.

Alkateak BERRIGARA adierazi dio, herritarrei zergak kobratzen dien moduan, barrakariak ere kobratu behar diela. Bestalde, barrakariak azken hiru urtee-

tan ez dituztela prezioak igo gogoratu nahi izan du. Azkenik, Barrakariak elkartekoekin harremanetan izan dela adierazi digu eta bertako ordezkaria ikasleei edozein azlapen emateko prest dagoela esan digu.

Beste herri batzuetan zer?

Barrakak kontuarekin beste herri batzuetan zer egin duten jakin nahi izan dugu. Orain arte, Legazpin eta Beasainen ospatu dituzte jaiak aurten. Arrasaten, San Juanetan ospatuko dituzte. Legazpin, Udalak banan banan negoziatzen du barrakariak. Aurtengo Santikurutzetan, barrakak buelta bat ematearren 250 pezeta kobratu dute.

Beasainen, oster, Udalak ez du ezer kobratzen lurra erabiltzearengatik eta, on-



Aurten barrakak oso garesti daudela eta, hainbat keja izan dira egunotan.


dorioz, 100 pezeta jarri dute barrakak prezioa. Arrasaten, berriz, San Juanetan ez diete lurra kobratuko haurren barrakarengatik eta buelta bakoitzeko 75 pezeta kostako da; helduenetan, oster, lurra alokairuarengatik kobratu die Udalak barrakariak; bueltako 225 edo 250 pezeta kostako da.

Lau milioi eta erdi

Behoko Estazioko zoruaren alokairuarengatik prezio bat zehazten du urtero Udalak. Barrakariak el-

karteari aurten 4.587.490 pezeta (iaz baino %2 gehiago) kobratzea erabaki zuen Udalak urte hasieran aurrekontuak egin zirenean. Barrakariak, bestalde, bi proposamen egin zizkieten Udalarik, prezioak merkatzeko: alde batetik, alokairua ez kobratzea; horren ordez, gainera, barrakariak bi gaztelu puzgarri jartzeko prest zeuden. Beste proposamena hau zen: Udalak iazko kopuru bera (4.497.539) kobratzea; horren ordez, barrakariak megafoniako musika jarriko zuten. **B**

ILEAPAINDEGIA



DIEGO VALOR

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

MISTOA ETA ESTETIKOA:
Zubieta 38, behea
943 76 37 70

GIZONEZKOAK:
San Lorentzo 2, behea
943 76 58 08

BERGARA

ARREGI AROZTEGIA





- Arozlan mekanikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Tarimak eta Parketak
- Neoprenozko juntadun egurrezko leihoak
- KAPRESA PVCzko leihoak
- Sukaldeak



TAILERRA: Urteaga 20. 943 76 11 73

ERAKUSKETA: Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03

EGUZKITARAKO
Betaurrekoak
3.500
pta.tik aurrera



EGUZKITARAKO
Betaurreko graduatuak
8.500
pta.tik aurrera

F. BARRAL

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA

MULTIOPTICAS



MOTO HONEN ZOZKETA GURE BEZERO ARTEAN



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela.
Diru barik erosleko modurik errazena.
• Ordaintzeta 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere erretargu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB" PROGRAMAKO PUNTUAK

**ERAMAN
EZAZU
OPARI
EDER BAT**





50 urteko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak. Bainuko altzariak.

Jai zoriontsuak!


ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korrante alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA Telefonoa: 943- 76 64 14 Faxe: 943- 76 62 99

Itziar Larrañaga, jaietako lelo berriaren egilea "Aurtengo pegatinako esaldiak ez dauka esanahi bikoitzik"

Aurtengo jaietan Jardunek kaleratuko duen pegatinan azalduko den esaldia Itziar Larrañaga 23 urteko bergararrak sortu du. "Oin bazare mutu, gero igual damutu" da pegatina lehiaketan irabazle irten den esaldia.

Zer adierazi nahi izan duzu esaldiarekin?

E. Esaldiak euskarari buruz hitz egiten du. Aurreko urteetakoek esanahi bikoitza izan dute. Gehienetan sexuarekin edo ligatzearekin lotutako esaldiak izan dira. Aurtengoak, ordea, ez dauka esanahi bikoitzik. Orain arte jendeak esanahi bikoitza bilatzeari ekin dio eta askok, beharbada, berdina egingo du aurten. Benetako esanahia ulertzea espero dut. Berandu izan baino lehen euskaraz berba egin behar dugula adierazi nahi nuen. Horrek ez du esan nahi ez dela euskararen aldeko ekintzarik egiten. Egiten dira eta gero eta gehiago; dena dela, Bergarako jendeak gehiago hitz egin beharko luke euskaraz. Jende gazteak batez ere. Gaztelaren aldeko tententzia, zorritzarrez, handia

da oraindik ere.

G. Zer dela eta hartu zenuen parte lehiaketan?

E. Liburutegian nengoe-la, izena emateko paperak ikusi nituen eta animatu egin nintzen. Guztira hiru esaldi bidali nituen. Batek, orain arteko esaldi aukeratuaren moduan, esanahi bikoitza zuen eta hura zen, nire ustez, aukera gehien zituena; azken hau aukeratu izana ustekabea izan da niretzat.

G. Lehiaketara zenbat aurkeztu dira?

E. Guztira 84 lagunek hartu dute parte.

G. Amodiozko gutunen lehiaketan ere Bergarako onenaren saria eraman zenuen.

E. Bai, sekulako ezustekoa izan zen. Ez nusen espero. Kasualidadez, idatzi nuen eskutitza euskararen ingurukoa zen. Egia esan, idaztea ez dut oso gustoko,



Amodiozko gutunen lehiaketan ere Bergarako saria jaso zuen Itziarrek.

baina joan zen urtean, sari banaketan egon nintzen eta, badakizu, gutunak errezitatzen entzuteak, sari banaketak eta horrek guztiak burua berotu egin zidan. Ez nintzen inongo helburu berezirekin aurkeztu; bat-batean hartutakoerabakia izan zen eta irabaztea ez zitzaidan burutik pasatu ere egin.

G. Datorren urtean aurkezteko asmotan?

E. Ez dakit, eskutitz bat idazteak denbora eskatzen du. Astirik badaukat aurkeztuko naiz, noski. Esperientzia polita izan zen.

G. Nola igaroko dituzu jaiak?

E. Ahalik eta ondoen. Hori espero dut. **B**



Zorionak!

PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32, behea BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65, faxa: 943 76 11 40

LA PUERTA AL INGLES, S. L.

98KO UZTAILEKO IKASTAROA

MATRIKULA ZABALIK

INGELESA

- MAILA guztiak
- Egunero, BI ORDUko klaseak
- GOIZEZ nahiz ARRATSALDEZ
- CAMBRIDGEko azterketetarako prestaketa
- ERREKUPERAKETA klaseak
- 6 URTetik gorako haurrentzako eta HELDUentzako hastapen klaseak
- MATRIKULA BARIK
- Klaseen hasiera, UZTAILAREN 1ean

*Udako ikastaroan parte hartzen duten ikasleek
EZ dute 98ko iraila-99ko ekaina ikasturteko matrikula
ORDAINDU BEHARRIK izango!*

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

uda kanpaina 98

1. TXANDA ekainaren 22tik uztailaren 3ra
2. TXANDA uztailaren 6tik 17ra
3. TXANDA uztailaren 20tik 30era

KIROLAK

Haur igeriketa
Igeriketa
Waterpolo
Piraguismoa
Aerobic saltsa
Aerobic step

Jazz dantza
Tenisa
Golfa
Pilota jolasak
Beisbola
Eskalada

Multikirola
Mantenimendu gimnasia
Street hockey
Saltsa-Merenge
Raftinga, Kanioiak
Eta abar...

IZENA EMATEKO EPEA EKAINAREN 3AN IREKIKO DA

*Anima zaitetz eta izena eman lehenbailehen Udaleko Kirol Zerbitzuan,
goizeko 7:30etatik arratsaldeko 13:30etara.*

Tf. 943 77 91 67

Antolatzaileak: Bergarako Udala eta Kirol Zerbitzua



Pili Agirre	Carabanchel	* 800 km
Iñaki Arenaza	Navalcarnero	860 km
Iñaki Arietaleaniz	Ourense	1.250 km
Mikel Askasibar	Herrera	1.400 km
Luis Mari Azkargorta	Martutene	90 km
Mikel Berasategi	Carabanchel	800 km
Jose Luis Elkoro	Martutene	90 km
Jose Mari Etxaniz	Cadiz	2.100 km
Luis Etxeberria	Cordoba	1.600 km
Jose Migel Gaztelu	Alcala de Henares	800 km
Eukene Gracia	Ceuta	2.500 km
Xabier Lazkano	Alcazar de San Juan	1.200 km
Xabier Oregi	Murcia	1.600 km

* joan-etorria.

**JAIK BAI,
PRESOAK EUSKAL HERRIRA
ERE BAI.**

Bergarako Presoak Euskal Herrira taldea

Nafar errekortadoreak zapatuan

Zezenen adarren aurrean saltoka: Aingeru eta Garrocha jauziak

Aurten lehendabiziko aldiz, zezen errekortadoreak izango ditugu Bergaran jaietan. Zapatuan, arratsaldeko 18:00etan, Nafarroako errekortadoreak ikusteko aukera izango da zezen plazan. Zortzi errekortadore izango dira eta modalitate ezberdinak eskainiko dizkigute: Collera, Aingeru eta Garrocha jauziak, Anila lehiaketa eta Don Tancredo modalitateak hain zuzen ere. Bestalde, ohiko zekorketa iragarri da domekarako.

Jende askok uste du zezenek Andaluzia, Extremadura edota Madrilen dutela jatorria. Euskal Herrian zaletasun handia egon arren, zezenak eta berari atxikita dagoen festa giroa, Euskal Herritik kanpo, espainolekin lotu izan dugun zerbait da. Halere, esan behar da, Nafarroako mendiak eta Auñamendi ingurua izan zirela zezenen sorleku, bizileku eta, era berean, topagune, nahiz eta, ondoren, zezenak estatu osora zabaldu.

Artzain nafarrak

Juan Luis Bikuña Zezenzaleak taldekoak esan digunez, "garai batean, Nafarroako artzainak (Unai izenez ezagutzen ziren) ganadua-ekin mendietara hurbiltzean, zezenen erasoen beldurrez, ezin izaten zituzten

zaldiak erabili eta ibilbidea oinez egiten zuten. Horrela sortu zen errekortadorearen irudia. Unaiak, beren gorputza erabiltzen zuten babes gisa zezenen aurrean".

Lehendabiziko toreo mota

Dakigunaren arabera, lehendabiziko toreo mota errekortadoreek egindako babes lana izan zen. Beranduago, XVIII. mendean hain zuzen, andaluziarrek egitura berria eman zioten: "makulua esaterako, eraberritze garaiari dagokio eta korridetan ikusten ditugun banderilak, berriz, errekortadoreen garaitik hartu dira oinordetzan. Urteak pasatu diren heinean, txuliatze motak asko landu dira. Horren eredu, egun antolatzen diren



Kollera jauzia ere egingo dute zapatuan errekortadore nafarrek.

korridak" esan digu Bikuñak.

Nafarroan ez da galdu errekortadorearen irudia. Gaur egun, estatuko beste toki batzuetan ez bezala, hainbat lehiaketa antolatzen dituzte. Zaragoza, Valentzia eta beste hainbat lurraldetako jendeak hartzen du parte. "Ikuskituzun polita izango dela uste dut eta jaietan zezen plazara inguratzea atse-

gin duenak, beste gauza bat ikusteko aukera izango du. Gorputzarekin egiten dituzten jokoak benetan ikusgarriak dira".

Zekorketa domekan

Bestalde, urtero moduan, domeka arratsaldean zekorketa antolatuko da zezen plazan. Bi txuliatzaile izango dira: Javier Castañeta eta Raul Cano, azken hauek aurretik iragarrita zegoen David Callejaren ordez.

**Zapatuan
zezen plazan.
18:00etan.**

Argitapen honen edizioko laguntzaile:



fundazioa
fundación

TELAETXE S.A.

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK


Zetak, toailak, izarak, eta abar.



► Somierrak (artikulatuak eta elektrikoak ere bai),
ordikoak eta LATEXeko KOLTXOIAK preziorik onenean!



► Etxea apaintzeko era guztietako
ehun-gaiak, estoreak...



► Sukalderako eta saloirako
kortinak neurria egiten ditugu.



► Era guztietako tapizak.

ORDUTEGIA

Astelehenetik zapatara: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)

Telefonoak: 943 76 39 40 / 39 41 • Faxa: 943 76 56 38 • BERGARA


Ondo pasau Bergarako jaixak!



BERGARA
Barrenkalea 35
943 76 03 98

ARRASATE
Otalora z/g
943 79 11 72

TXIKI LAKET
Arrasate
Erdikokale 10
943 79 93 33



Eta orain txikientzako erropa eta oinetakoak!



ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00
Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

Nor izan zen Bitorianatxo?

1981ko Pazkuetatik Bitorianatxok jaien hasiera eta bukaera markatzen du. Aurretik Txibisto (1979an) eta Xirulari (80an) izan ziren jaien iragarleak. Bitorianatxori buruz gauza gutxi dakigu: San Kristobal auzoan zegoen Mozolotegi baserrikoa omen zen. 1920 aldera hil zela uste da, amona zahartxo zela. Grazia handiko emakumea, bakartia, txurrutera samarra, erdi sorgintzat hartua omen zen (sendabelarretan jakituna ere bazen) eta inguruko erromerietan li-moi ura saltzen ibiltzen zen.



Iñaki Goenaga

Ez dakit. Badakit Ikastolatik Plazara jaisten dela jaietako emateko. Uste dut potetxoak daramala jaietan dirua biltzen zuelako lehen.



Garazi Olabarria

Jaiak hasteko eta bukatzeko erabiltzen den panpina. Lehen uste dut egunero jaiten zela herrira bere baserrietik, janariak eta saltzera.



Pello Mujika

Muñeko bat da, andra zahar bat, jaietako emateko erabiltzen dena. Ez dakit nondik datorren; ez dut ezagutzen Bitorianatxori buruzko leienda.



Andoni Zubia

Baserriar kaiku bat. Ustedut Saizabalekoa zela, liburu batean ikusi dudalako. Berak asmatu zituen Bergarako jaiak eta horregatik agertzen da urtero Plazan.



Naroa Barrueta

Emakume bat, Bergaran bizi zena. Bere baserrian lan egiten zuen eta ospetsua egin zen herrian, horregatik irretzen da jaietan bere panpina.



Ibon Leibar

Nobixorik ez zeukan neska zaharra zen. Andereñoak esan zidan Bergarako jaietako buruzko idazlana egin nuen. Aspaldikoa izango zen, panpina egin diote eta.



Larraitx Zubia

Bergarako jaietan ibiltzen zen; barraketan eta ibiltzea gustatzen zitzaion eta alkaterearen andrea izan zen. Asko gustatzen zait eta lagunekin joaten naiz ikustera.



Nerea Goenaga

Bergarako maskota denez, oso ezaguna da. Parranda asko egiten zuen eta horregatik agertzen da urtero jaietan. Dirua eskatzen ibiltzen zen etxerik etxe.



Lurrindegia, opariak eta edertze aretoa

académie
scientifique de beauté. Paris

GUERLAIN
PARIS

BOURJOIS

...eta beste asko

Barrenkalea 25 Tf. 943 76 16 97

Jai zoriontsuak igaro!

Pazkuetan, orain dela...

1950eko hamarkadatik gaur egun arteko jaietako programak errepasatuz, badira urtetan mantendu diren ekitaldi batzuk (domekako meza eta ondorengo Bandaren kontzertua esate baterako) eta garai bateko indarra galdu ondoren programatik desagertu diren beste mordo bat ere (estanpen lehiaketa kasu). Gauza bitxi batzuk ere aurkitu ditugu bidean.

1952 Ekainaren 1etik 3ra bitartean "fiestas de sociedad" zeritzena antolatu ziren Casinon. Era berean, ospitale aurreko plazatxoan (gaur eguneko erresidentziaren ondoan) California zirkoak hainbat emanaldi eskaini zituen jaietan. Zirko bera 1971ko jaietan ere izan zen.

1954 Ekainaren 5ean patin-hockeyeko nazioarteko partiduak izan ziren Frontoian, Club Vasco de Camping, Club Deportivo Esperanza, Biarritz Olympique eta Real Sociedad taldeekin.


1962 San Martin Agirreren kanonizazioaren lehen mendeurrena Domekan eta astelehenean (ekainak 10 eta 11), txirindulari probak jokatu ziren Agorrosingo zelaian egokitutako belodromoan. Partaideak Miguel Poble, Guido Messina, Oscar Plattner eta Miguel Bover izan genituen.

1964 Maiatzaren 19an, asteartean, Euskaltzaindiak antolatutako bertsolari gazteen lehiaketa izan zen goizeko 10etan Frontoian.

1965 Ekainaren 7ko txekorketan, Zaragozako Cayetano Navarro eta Meridako Blas Romero "Platani-to" toreroek hartu zuten parte. Hurrengo egunean, kuadrilen arteko lehen txapelketa jokatu zen.

1967 Domekan, maiatzaren 14an, Uztapide, Lizaso, Lazkao-Txiki eta Egileor bertsolarien saioa izan zen Seminarioan. Martitzenean "Polito y sus discos vivientes" fanfarea aritu zen herriko kaleak alaitzen.

1968 Bergarako sorreraren zazpigarren mendeurrena osatu zen. Zapatuan, ekainaren 1ean, Ez Dok Amairu taldearen emanaldia izan zen Frontoian.



1979

Ekainaren 1ean "Txibisto"ren jaietsierak eman zien hasira jaietari. Silvestre Ariznabarreta "Txibisto" 1867 urtean jaio zen San Juango Arizabaleta baserrian. Ariz-Ondo aldiakariaren 1980ko maiatzeko zenbakian jasotzen denez, Euskal Herriko bidelapurrik beldurgarrietakoa izan genuen. 84 urte zituela hil zen. 1980an "Xirulari" izan zen jaietari iragarlea eta 1981tik "Bitorianatxo"k ematen die hasiera eta bukaera jaietari.

1969 Jaietari aurretik, maiatzaren 21ean, Bergarako "Ernai" antzerki taldeak Txomin Amasorriak euskaratutako "Argi ixpi bat" (Aldo Bonetti-rena) antzezten zuten Novedadesen.

1970 Maiatzaren 16an, zapatuan, Euskal Jaialdia izan zen Frontoian, Luis Amilibia, Trio Zaigor, Esthetxu, Maria Lourdes Iriondo eta Xabier Leterekin.

ERLOJUDENDA

Ondo pasau jaietan!!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA

1971 Maiatzaren 29an, zapatuan, Roman Oiarzabalen omenezko jaialdia izan zen Irala zinean, Alkartu-Naik antolatuta. Umore-Ona abesbatza, Felix Aranzabal akordeoilaria, Ametslariak taldea, Zuztar-Berri gazte abesbatza, Iñaki Arriaran abeslaria edota Larrañaga anai-arrebak (Julio, Mari Angeles eta Kikio) izan ziren bertan.

1972 Maiatzaren 20an, zapatuan, Euskal Liburu eta Diskoaren Lehen Azoka egin zen. Gauean, berriz, dantzaldia izan zen Verdury Hall-en, Egan taldea eta Los Yokin's orkestarekin. Astelehen gaueko dantzaldian Bergarako Clan V taldeak hartu zuen parte.

1973 Ekainaren 9an Agorrosoingo kanpoko piszinak inauguratu ziren. Domekan, hilaren 10ean, haurrentzako jaialdia izan zen Plazan, besteak beste, TVEko "Locomotoro" pertsonaia ezagunaren partaidetzarekin.

1974 Zapatutik martitzenera bitartean, TVEko pailazo ezagunek "Alegria e ilusión" ikuskizuna aurkeztu zuten Bergarako Cineman.

1977 Ostiralean, maiatzaren 27an, jaialdia izan zen Ariznoa diskotekan Pantxoa eta Pellorekin. Martitzenean, elkarteen arteko lehen sukaldaritza lehiaketa jokatu zen.

1978 Zapatuan, maiatzak 13, jaialdia izan zen Frontoian Maria Ostiz eta Gernika taldearekin. Domekan, Euskadiko Dantza Solteko Lehen Txapelketa jokatu zen.

1979 Domekan, ekainaren 3an, Gorlara I. Kotxe Igoera jokatu zen. Arratsaldeko 8etan Triana taldearen rock-jaialdia izan zen.

1981 "Biktorianatxo"ren jaietsiera egin zen lehen aldiz, ekainaren 5ean. Bestalde, 22:30etatik goizeko 7ak arte dantzaldia izan zen Plazan, Bries eta Seska taldeekin. Goizeko 7etan Juventudesetan txokolatada izan zen. Domekan, Niko Etxart eta bere taldea izan ziren Plazan.

1982 Zapatuan, maiatzaren 29an, Benito Lertxundiren emanaldia izan zen Frontoian.

1983 Ostiralean, maiatzaren 20an, dantzaldia izan zen Plazan Izadi taldea eta Mikel Herzog kantaria-rekin.

1984 Zapatuan, ekainaren 9an, jaialdia izan zen, El Señor Tomas (filosofo de taberna), Enrike Zelaia eta Alma Navarra taldearekin. Jaiei bukaera emateko, "Iltzeari" lur eman zitzaion.

1986 Ostiralean, maiatzaren 16an, Potato, Suersion eta Doble Incongruencia taldeekin rock jaialdia antolatu zen Plazan. Zapatuan, bestalde, Alegria Tafallesa, Marianico "El Corto" eta Francisco Rivelles y sus marichis taldeak izan ziren Frontoian.

1987 Ekainaren 5ean, ostiralean, Urizar-Badiola (Hegoamerikako musika) eta Sergio eta Estibaliz izan ziren Irala zinean.

1988 Maiatzaren 20an jaiak hasi eta hurrengo egunean, zapatuan, rock jaialdia izan zen Bideberrin Burutik terminaute, Eskoriatza, Angiolillo eta Xementerio taldeekin.

1989 Larunbatean, maiatzaren 13an, Gorlara Moto Igoera jokatu zen. Astelehenean, Eguzki taldeak antolatutik, baltsa lasterketa egin zen Deba ibaian. Jaien ostean, maiatzaren 19an, Alaska + Dinarama taldeak kontzertua eman zuen Txibiston.



ROSA MARI LAZKANO.

1966

Maiatzaren 31n Estanpen Lehen Lehiaketa egin zen. Alboko argazkian parte hartu zuen talde bat. Ezkerretik eskumara: Jose Mari Laskurain, Rosa Mari Lazkano, Cristina Gabilondo, Juan Mari Garitano, Kontxi Ilarduia, Pili Gurrutxaga eta Jose Mari Aretxaga.

Ipiñarri zerrategia S.L.

MUEBLEAK. AROZGINTZA. ERAIKUNTZA. ENBALAJEA

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

**BERGARAKO UNEDen
UDAKO
IKASTARO INTENTSIBOAK**

**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

**Ekainaren 24tik
uztailaren 14ra.**


- GOIZEZ ETA ARRATSALEZ.
- ADIN GUZTIAK:
HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO 3 EDO 4 ORDU.

INFORMAZIOA:
Bergarako UNED.
San Martin plaza z/g (3. pisua)
☎ 943 76 06 87



M A T R I K U L A Z A B A L I K !

**ZURE AMETSETAKO BAINUA, OBRAK
HASI AURRETIK IKUS DEZAKEZU**



**ITURGINTZA
GAS INSTALAZIOA
BEROGAILUAK**



DIBA. Bainuaren Diseinu integrala.

DIBA Bainuaren Diseinu Integralerako programaren bitartez, zure ametsetako bainua obrak egin aurretik ikusi ahal izango duzu.
Zatoz Luis Mari Larrañaga Iturgintzara, atsegin haundiz eta profesionaltasun osoz hartuko zaitugu!!

Mario Cornago, Oropendola taldeko saxojolea "Estilo ezberdinetako kantuen bertsioak egiten ditugu"

Oropendola nafar taldeak 20 bat urte daramatza hango eta hemengo jaiak alaitzen. Errepertorio zabala balaz baliatuaz, adin guztietako jendea dantzan jartzea da euren helburua. Bergaran domekan izango ditugu, 23:00etan Plazan. Mario Cornago saxojolearekin berba egin dugu.

U ne honetan zenbat lagun zaudete Oropendola taldean?

E. Taldean 10 gara eta beste 4 lagun etortzen dira gurekin eskenatokia jarri eta alderdi teknikoaz arduratzen. Tarazonakoa, Aragoiakoa, den taldekide bat izan ezik, guztiak nafarrak gara. Juan Jose Berastegi soinu teknikaria taldeko fundatzailetako bat izan zen eta 20 bat urte daramatza taldean. Santi gitarrajoleak eta Rocio abeslarietako batek (bestea Marian da) ere urte dexente daramatzate Oropendolan. Niri dagokidanez, aurtengoa nire 6. denboraldia da taldean. Guztiok bizi gara honetatik.

G. Nondik nora ibiltzen zarete?

E. Nahiko erlatiboa da hori, urte tik urtera aldatu

egiten da eta. Nire lehendabiziko urtean, adibidez, Castellon-Valencia aldean ibili ginen gehienbat, hurrengo urtean Cuenca eta Madril inguruan... Azkenaldian Bartzelona aldera jo izan dugu asko. Urte osoan aritzen gara (urrian izan ezik) eta 120 bat emanaldi ematen ditugu denera. Euskal Herrian, berriz, ez dugu gehiegi jotzen; urtean 10-15 emanaldi izango dira.

G. Neketsua da zuen lana?

E. Egun batzurretan gogorra egiten da, bai. Kilometro asko dira errepidean eta udan zenbaitean ez daukazu jotzeko gogo handirik. Baina lana dagoen bitartean, pozez ibiltzen gara plazarik plaza. Negua nahiko gogorra izaten da, emanal-

**Domekan,
San Martin
plazan.
23:00etan.**

Talde nafarra behin baino gehiagotan izan da Bergarako jaietan.



diez aparte, entsaiuak egin eta koreografiak lantzen ditugulako.

G. Zelako errepertorioa daukazue?

E. Beste talde batzuen kantuen bertsioak egiten ditugu eta errepertorio zabala daukagu, estilo ezberdinetako kantuak jotzen ditugu: rock abestiak, tangoak, baladak... Ricky Martinen lau jotzen ditugu, Dover-enak, Acqua-renak, Amparo Sandinorenak... eta tema klasikoak ere bai: Queen, Deep Purple, Van Halen...

G. Jendeak dantzan egiten du zuen emanaldietan?

Zelakoa da hemengo ikusle goa?

E. Normalean jaialdiaren hasieran giroa nahiko hotza izaten da, baina piskanaka piskanaka jendea girotuz jotzen da. Lehendabiziko zatian publiko helduago bati zuzendutako kantuak jotzen ditugu eta azkenekoak uzten ditugu kantu martxo-soenak. Gogo handiz irretzen gara eskenatokira, guztia ematen dugu eta jendea gustora geratzen da. Horko ikusle goa? Amurrion eta Durangon dexente jo dugu eta jendeak izaten du, dantzarako gogoia. B

Bazkaixak, afaixak eta... Jaixak!!! Zatozte eta ondo pasau danok!

Mekolalde taberna

Mekolalde auzoa z/g Tf. 943 76 50 18



1967ko Pazkuak



Aste honetan bi erretratu zahar erakusten dizkizugu, biak 1967. urteko Pazkuetan ateratakoak. Bertan ikusi daitekeenez, garai hartan mozarrotzeki ohitura zegoen jaietan. Estantpa lehiaketa eta koadrilen lehiaketa antolatzen ziren eta jende mordera mozarrotzen zen. Oso giro polita izaten zen.

Hona hemen goiko argazkian, periodiko zatiekin egindako tradotorez jantzita, agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara: Anton Ezenarro, Jabier Otaño, Maria Angeli Zaitegi, Maria Isabel Larrañaga, Angel Gallastegi eta Patxi Berraondo.

Behekoan, berriz, Ye-ye modernoz jantzita agertzen diren honako hauek dira: Felix Laskurain (burua ikusten zaio bakarrak), Maria Angeli Zaitegi, Tomas Garitano, Maria Isabel Larrañaga, Martere Lazkano, Jose Luis Garitano eta Luis Abajo.



zumelaga
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

EGUNERO ZABALIK!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ! Jai zoriontsuak!

BERGARA Kafea-Pentsioa

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.

Gosariak, pintxoak,
bokatak eta meriendak.

Logelak.




Logelak



Kafetegia

Ondo pasau jaixetan!

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23



Bizikleta gustatzen bazaizu!

BICIPRECISIÓN IGARTUA

Espainia eta Portugalerako inportatzaile eta banatzaile eskusiboa

Iñigo Igartua

fietsen **FLANDERS** cycles

GT
bicycles

F.moser

500m², BILTEGI ETA DENDA BERRIA.

BIZIKLETAK:

ERREPIDEKOAK, MTBak, UMEENTZAKOAK, ESTATIKOAK, TRIALEKOAK, TANDEMAK ETA ZIKLO-KROSSEKOAK.


ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK.

BIZIKLETA GARBIKETA eta ENGRASE ZERBITZUA.

ERA GUZTIETAKO ERROPA, OINETAKO eta ZAPATILAK.

Zubieta 5-7, posta kutxa 9, 20570 Bergara. Tf. 943 76 11 21, faxa 943 76 06 75, mobila 989 76 11 21

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



BERGARA (GIPUZKOA)
San Juan Erreka. Elgetara bidea.
Tf.: 943 76 36 42 - Faxa: 943 76 54 25.